

## DEMENTZIA BIZITZEN

Dementia duten pertsonen zuzendutako proiektu komunitarioa

DEMENTZIA-BIZITZEN programa Buru-bihotzez elkarteak bultzatutako eta Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatutako proiektu bat da. Proiektu honek **jarduera esanguratsuen programa multimodal bat abian jartzea proposatzen du, dementia duten pertsonen dimentsio fisikoa, kognitiboa, emozionala eta sentsoriala estimulatzea sustatzen duena**, belaunaldi desberdinetako pertsonen harremanak sustatuz. Programa hau etxeetan bizi diren demenziadun pertsonen zuzenduta dago. Pertsona ardatz duen arretaren ikuspegiari oinarrituta dago, eta eguneroko jarduera esanguratsuak garatu nahi ditu ingurune komunitario batean.

Dementia duten pertsonen autonomia pertsonala eta komunitate-integrazioa sustatzera eta babestera bideratuta dago DEMENTZIA-BIZITZEN programa. Horretarako, gizarteratzea, boluntarioen sustapena, autonomiaren sustapena, arreta eta babesaren bidez mendekotasuna prebenitzea eta familia zaintzaileei laguntzea sustatzen duten jarduerak planteatzen dira.

Dementia duen pertsona bakoitzaren bizitza-historia eta egoera kognitibo eta fisikoaren ebaluazioa jasotzen da. Ondoren, esku hartzeko programari ekingo zaio, 12 astekoa, astean 1.5 orduko 3 saiotan. Hauek dira programa osatzen duten hiru osagaiak:

**MUGITZEN:** ariketa fisikoa sustatzen duten saioak, fisioterapeuta batek koordinatuta.

**GOGORATZEN:** oroitzapen konbinatua estimulazio kognitiboko saioekin sustatzen duten jarduerak.

**SENTITZEN:** estimulazio sentsoriala, musikoterapia, uretako jarduerak eta animalia-terapia bezalako terapien bidezko saioak, hitzik gabeko komunikazioaren bidez pertzepzioa eta loturak sustatzen dituztenak.

Programaren berri emateko hitzaldi bat antolatuko da familientzat, profesionalentzat eta proiektuan boluntario gisa parte hartu nahi dutenen guztientzat. Hitzaldia **martxoaren 4an izango da Tolosan**, Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastolan, **18:00etatik 19: 30era**. Hitzaldia **Asier Arrizabalaga** fisioterapeuta eta **Igone Etxeberria** Psikologia Fakultateko (UPV/EHU) irakasle eta ikertzaileak emango dute, Zahartzaroko (Geriatría eta Gerontologiako Euskal



Elkartea) Desgaitasun eta zahartzaroa taldeko koordinatzaileak direnak. 40 lagunentzako lekua egongo da hitzaldira aurrez aurre joan nahi dutenentzat, eta streaming bidez jarraitzeko aukera emango da esteka honetan: <https://youtu.be/zu58vfEB4WE>

Buru-bihotzezen oso eskertuak egongo ginateke demenzia duen pertsonaren bat duten familien artean programa zabaldu ahal izango bazenu, hitzaldi honetara joatera anima daitezen, bertan DEMENTZIA Bizitzen programari buruzko informazio gehiago emateko.

Informazio gehiago nahi izanez gero, telefono zenbaki hauetara dei dezakezu:

943 006879/688760927.